

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2013ko maiatzaren 2a. IX. urtea. 2.587. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Hiru adinekoen zentroetako langileak, protestan

Tolosaldeko hiru egoitzek bat egin dute mobilizazioekin; gaur goizean, auto ilara bat egingo dute Tolosatik Villabonara **02**



Igor Labaien
Gazteen entrenatzailea

«Kanpora joateko eskaintzak izan ditut, baina Espanyol taldean gustura nago»

Elkarrizketa **06-7**

Joxemari Iturralde
Idazlea

«Literaturak beste mundu batean sartzeko aukera ematen du»

Elkarrizketa **03**

Jende andana bildu da eredu ekonomiko berri bat eskatu duen manifestazioan

LAB sindikatuak Hernanin egin du maiatzaren 1eko manifestazioa; gazteek, Villabonatik hasita bizikleta martxa egin dute Tolosara bertan ekitaldia egiteko **02**



NAKIGORRITXAGA

→ **Jendetza elkartu da larreen irekieran.** Urteroko erretratua errepikatu da Abaltzisketan maiatzaren lehen egunean. Larraitzen festa giroa nagusi izan da, Aralarko larre irekieraren harira. Abereek hutsik egin ez duten moduan, artisauak eta jakiek ere milaka bisitari erakarri dituzte Txindokiren magalera. **04**



Bazkariaren aurretik, herri kirol saioa izan zen pilotalekuan. Bi taldetan banatuta aritu ziren lehian. E. MAIZ

Burruntzian erretako txekorraren aitzakian elkartu dira, Baliarrainen

Maiatzeko lehen bazkaria, urtero moduan, txekor errea izan dute baliarraindarrek; 200 pertsona bildu dira, eta aurretik herri kirol saioaz gozatzeko aukera izan dute **05**

Irudia ◊



EREDU EKONOMIKO ETA SOZIAL BERRI BAT ESKATUZ

Jende andana bildu zen atzo goizean Hernanin, LABek, burujabetza politiko eta ekonomikoa, eta aberastasun banaketan oinarritutako lan harreman eta babes sozial eredu berria aldarrikatzeko deitutako manifestazioan.

Sindikatuaren esanetan, 1.000 bat lagunek egin zuten bat *Borokatu, Matxinatu eta Iraili* Euskal Herria lelopean egindako manifestazioarekin, tartean, eskualdeko hainbat eragilek. Arratsaldean, bizikleta martxa egin

zuten Tolosaldeko hainbat gaztek Villabonako plazatik hasita, Tolosaraino, bidean geratzen diren herriak zeharkatuz. Ondoren, Tolosako Plaza Berrian ekitaldia egin zuten, Ernai gazte antolakundearen eskutik. HITZA

Eskualdeko hiru adinekoen zentroetako langileek bat egin dute grebarekin

Bihar Donostian egingo den manifestazioarekin emango zaie amaiera bost eguneko mobilizazioei

Mikel Iraola

Tolosako Iurreamendi egoitza eta Uzturre asistentzia zentroak, eta Amasa-Villabonako Santiago egoitzak bat egin dute, astelehenean Gipuzkoako zahar etxe eta eguneko zentroetan langileek hasi zuten grebarekin.

Espainiako Gobernuaren erreforma Gipuzkoako adinekoen egoitzetan aplikatzeari uko egin, eta hitzarmen duinak sinatu eta bere horretan onartzeko eskaera egiteko, 3.000 langile baino gehiago zeuden deituta bost eguneko greba honetara.

Iurreamendi eta Uzturreko langileak greban dira. Villabonako Santiago egoitzan aldiz ez daude greban, baina mobilizazioekin



Grebako kartelak Iurreamendiko egoitzaren sarreran. M. IRAOLA

bat egin dute. Gaur mobilizazioekin jarraituko dute Gipuzkoa osan zehar. Autokarabana bat egingo dute Zumarragatik abiatuta. Tolosako Iurreamendira 10:00ak

inguruan iritsiko da, eta handik Villabonara joango da. Bihar, berri, Donostian manifestazioa egingo dute.

Sindikatuaren arabera, erantzun handia izan du grebak. Astelehenean %92ak egin zuen bat, eta Donostiako kaleetan *Hitzarmen duina, erreformari* ez llopean egin

zuten manifestazioan 800 pertsona bildu ziren. Adegiren esanetan berri, hamarretik bederatzila nean daude.

Aste honetan akordiorako pausorik ez bada lortzen, langileak, maiatzaren 13rako greba mugagabera deituko dituela adierazi du ELA sindikatuak.

Kaleratzeen aurkako greba egingo dute bihar SAMeko langileek

M. Iraola Tolosa

Egun bakarreko greba egingo dute bihar SAMeko langileek, azken urteotan enpresak burutu dituen kaleratzeak salatu eta hauek errepika ez daitezen eskatzeko.

2011ko irailetik hona, 17 langile kaleratu ditu enpresak, horietako bost, pasa den martxoaren 31n. Enpresak arrazoi produktibo eta ekonomikoak aipatu zituen arrazoi gisa. Langileak, ordea, ez daude ados: «Mozkinak ahalik eta gehien handitzea dute helburu. 2009tik dibidendu banaketa izugarria izan da, eta aberastasuna enpresatik aterazuten, etorkizuna kolokan jar zitekeen edo ez kontutan hartu gabe. Langileok gogor salatu nahi dugu jokaera hori».

Zuzendaritzak kaleratzeak albo batera utzi gero, «enpresaren etorkizunari buruz eztabaidatzeko prest» daudela azaldu dute langileek komunikatu baten bitartez.

Bihar, beraz, kaleratzeak gertatzeko eskatuz eta kaleratuekiko elkartasuna adieraziz greba egingo dute. Goizean goiz, Tolosatik kotxe karabana egingo dute Donostiara bidean. Han, Gobernuko Enplegu eta Gizarte Saileko egoitzan kontzentrazioa burutuko dute.

↓ Iragarki laburrak

LAN BILA

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa dutenek, deitu 943 69 68 82 edo 606 52 19 92 telefonoetara.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Duela 4 aste inguru, artzai txakurra galdu zen Bidegoian inguruan; arra, ile motza, beix kolorekoa eta koilare horia eta beltza du. Lur izenari erantzuten dio. Bere berri duenak, mesedez deitu: 606 694 773.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Joxemari Iturralde ◊ Idazlea

Idazle tolosarrak ibilbide luzea egina du, batez ere, haur eta gazte literaturan; 'Rasputin eta San Petersburgoko gauak' eleberria argitaratu berri du.

«Denbora luzez ez badut idazten, gaizki sentitzen naiz»



O. ARTOLA

Olatz Artola Tolosa

Joxe Mari Iturralde Uria. Hitz-jokoa eginda, Jimu. Lagunarteko ezizena. Margolanetan erabiltzen zuen sinadura. Egun, Joxemari Iturralde (Tolosa, 1951) du izen artistikotzat eta berak ere horrela aurkezten du bere burua. Sorkuntzaren alor ezberdinetan aritua da. Margolari kontuak aspaldi atzean utzita, bere burua idazle-tzat du.

Aldi berean sorkuntza ezberdinak egiten dituzunean, horietako bakotzetan Joxemariaren zatitxo bat erakusten duzu ala guztietan berbera? Ni gaztea nintzenez argi nuen gauza bakarra zer egin nahi ez nuen zen. Sorkuntza nuen eta dut gustuko, eta margotzen hasi nintzen. Beti esan izan dut bizitzan hiru gauza batera egin ez gero, ez duzula bat bera ere taxuz egingo. Unibertsitatean literaturara jo nuenez margotzeari utzi nion eta idazketan jarri nuen fokua. Ez dut beraz alor ezberdinen talkarik izan.

Sorkuntza abangoardista bezala definitzen zaituzte.

Esaten da abangoardiak XX mende hasieran hil zirela. Frankismo garaian, euskara debekatuta zegoen, gero Franco hil eta Pott izeneko taldea osatu genuen eta euskaraz idazten genuen. Abangoardia nahikoa zen garai hartan literatura euskaraz egitea.

Luze egon zen bizirik Pott banda. Honekin ekimen bati bizia ematea ezinbesteko ikusten zenuen 77an?

Gauzak askotan ez ditugu egiten gerora pentsatzen. Momentu hartan hemengo giroa itogarria zen. Oso tristea, itxia. Eta kanpotik ekartzen hasi ginen hemen ez zegoena, kanpoan egiten zen literatura euskaratu egiten genuen, leihoak irekiz hemen aire freskoa sar zedin, hori zen gure helburua. Euskaraz argitaratu ahal izateko, editoriala behar genuen eta ez geneukan dirurik. Egin bitarte Pott

aldizkaria sortu genuen. Diru falta dela eta, dena guk egiten genuen: idazketa, diseinua, banaketa, salmenta...

Lehenalean: «Bi hitzetan adieraziko dizuegu zertan den gure konplota. [...] Editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearren. [...] ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino. Mekaben Pott»

Dena kontra geneukan, egun Nafarroako Erriberan euskaraz egin nahi dutenei pasatzen zaien gisan. Egoera hori Euskal Herri guztian zegoen: debekua. Gure aurkako konplota zegoen diktadura ondoko garai hartan eta saiatu behar genuen horri buelta ematen. Garai hartan ez geneuzkan guztiz argi geure buruak baina ekinean argitu genitzakeela uste genuen. Horrela, aldizkari literarioak egiten hasi ginen.

Azken alean: «[...] orain ere aski zaigu galbaha literarioa edonor hartzeko adiskide, eta idazleen joera linguistikoa apur bat begiratzen badugu ere, horrek ez digu gehiegi ardura, ez baikara, askok desio luketen bezala. Euskaltzaindia punk bat [...]»

Azken alea, seigarrena, mardula zen oso, baina pott egin genuen ez geneukan eta dirurik. Azken alean gure ezagun eta lagun idazle gazteen lanak sartzen hasi ginen, gaztelaraz zitirenak. Nahiz eta euskaraz ez zekiten gure proiektuarekin konforme zeuden eta gurekin lan egiteko gogoia zuten. Guk bide hori itxi orde zekien sartu genuen. Kritikatuak izan ginen, baina gauzak ez dira inoiz garbiak izaten: batzuk beti alde izango dituzu eta beste batzuk kontra.

1983an zure lehen ipuin-bilduma argitaratu zenuen, Dudular.

Pott bandan 3 urtez ibili ginen aldizkariarekin. Dirua lortu nahi genuen editoriala osatzeko eta garai hartako literatur lehiaketetara gure ipuinak aurkeztea bururatu zitzaigun. Sari potoloak zi-

ren eta nik 2-3 irabazi nituen. Ipuin horiekin eta beste batzuekin antologia moduko bat egin nuen, Dudular izenekoa.

Ordutik ibilbide luzea egin duzu, batez ere haur eta gazte literaturan.

Helduentzako liburuak egiten ditut. Liburuok idazteak denbora mordo eta dokumentazio lan handia eskatzen dit. Mantso joaten naiz. Kilkerra eta roulottea nobela idazteko, adibidez, 8 urte egon nintzen jardunean. Gora-behera asko dituzu. Egun batzuetan zure burua tunel baten erdian ikusten duzu, ez atzera eta ez aurrera. Tartean, estresa kentzeko edo, egiten nabilena albo batera uzten dut eta burua arintzeko umeentzako edo gazteentzako ipuin edota liburu bat egiten dut. Atsedean bat hartu eta apunteei forma ematen diet. Gero ekiten diot berririo nobela idazteari.

Haur literatura gutxietsi egiten da?

Jakina da letra larriz idazten diren obrak helduentzako idatziak direla, baina ez pentsa. Haurrek estimatzen dituzte beraientzako egindako lanak. Umeentzat idaztean ibilbide bat ere egin behar duzu ikastetxez ikastetxe. Beraiekin harremana daukazu eta zure fruituen erantzuna jasotzen duzu. Hori idazle batentzat oso aberasgarria da.

Umeentzat ulerterraza egitea zaila da ezta?

Beraien mundua asmatu behar duzu. Eta asmakuntza horretan ere, asmatu. Mundu horietan sartu behar zara eta gustuko dutena sortu. Gaia, idazteko modua, erritmoa, estiloa, hizkuntza berezia... guztia aldatu behar da eta ez da batere erraza.

Literatura heziketarako bide da. Ika-si egiten da irakurriz...

Eta bizi. Ezin dituzun hainbat gauza bizi ditzakezu. Beste toki, giro eta denbora batean kokatu zaitezke. Beste mundu batean sartu. Literaturak aukera hori ematen dizu, etxetik mugitu gabe

beste bizitzak bizitzeko. Gainera, testuinguratzen zaituzenez eta parte sentitzen zarenez, bizitzeaz gain ulertu ere egin dezakezu.

Datei eta kopuruei begiratu, 2012an lau liburu argitaratu zenituen.

Arraroa da bai, baina zu baldintzatuta zaude. Zuk idatzi ditzakezu denbora ezberdinean eta editorial bakoitzak erabakitzen du noiz argitaratu. Beraz, duela lau urte idatziako liburu bat jendearengana aurten ailegatu daiteke editorialak horrela nahi badu.

Aurten zure azken lana aurkezten duzu: Rasputin eta San Petersburgoko gauak. Errusiako azken tsararren egunak berregiten dituzu.

Duela 100 urte pasa zen hori. Orduan langabezia, injustizia, korruptzioa eta miseria zeuden, gaur bezala. Kalean protesta bizia egiten zen. Giroa lehertzeaz zegoen eta azkenean iraultza etorri zen. Agintari, politikari, jauntxoek, aldiz, festak eta orgiak egiten zituzten ia egunero, palazioetan, aberatsen etxeetan. Kontraste izugarria zegoen. Nolabaiteko parelismoa dago egun guk bizi dugunarekin. Eta istorio hori bi euskaldunen begitatik dago kontatuta. Bata, mediku baten etxean bizi den mutila da eta bestea, printzearen etxeko neska. Tartean, Rasputin dago, miresmena eta gorrotoa eragiten duena.

Binomio moduko bat da. Gizaki guttiak eragiten al ditugu sentimendu kontrajarriak?

Rasputinek jendea sendatzeko ahalmena zuen. Errusiako here-deroa izango zena hil zorian zegoen eta berak salbatu zuen. Tsarinak jauregian geratzeko esan zion eta Rasputin botereaz baliatu eta politikariekin dena manipulatzen hasi zen, guztia nahastan. Kaleko jendeak Rasputin etsai bezala ikusten zuen, burgesek miresten zuten bitartean. Guztiok eragiten ditugu kontrajarriak diren sentimenduak.

Eta egoera kontrajarriak bizi dituztenek ondorio berberak ere jasan ditzakete?

Rasputin eta protagonista euskaldunen kasua da hori. Bikote horrek, pertsonaia euskaldun horiek egoera sufritzen dute, eta bereak aparteko egoera hori sortu ez dutenez ezin dute ezer ere egin aldatzeko. Rasputinek ere ez zuen iraultza nahi, baina nahigabe eragin zuen. Liburuok bi protagonista nagusiak, bikote euskalduna eta Rasputin, biak daude preso eta biak sufritzen daude egoera latz hori: nahita eta nahigabe.

Idazten duzun hori egungo gizartearekin ala zurekin lotu ohi duzu?

Ni, protagonisten eta nire artean distantzia bat jartzan dudan arren, istorioak betiere Euskal Herriarekin lotura duenez, gertu sentitzen naiz. Ni ez naiz protagonista eta ez zait beraien gertatutakoa pasa, baina euskalduna naizenez, gertutasun moduko bat beti dago.

Zuretzako ala irakurleentzako idazten duzu?

Irakurtzea eta idaztea gustatzen zait betidanik. Ezin dut bizi irakurri gabe eta gaizki nago denbora luzez ez badut idazten. Ezinbestean idatzi edo irakurri egin behar dut. Idazleak beste norbaitek irakurtzeko idazten du. Eta ahalik eta irakurle gehien izateko. Idatzi duenaren irakurlearekiko hartu emana bilatzen du. Baina isla batean bakarrik egongo banintz irakurtzen eta idazten jarraituko nuke, dudarik gabe, sekula irakurlerik ez eduki arren. Barrutik sortzen zaizun zerbaitekin, idazteko eta irakurtzeko eskatzen dizun zerbaitekin.

Idazten jarraituko duzu beraz.

Dudarik gabe. Eta irakurtzen. Nahi dudana egiten dut, gustatzen zaidana. Ez nau inork idaztera bultzatzen edo behartzen. Nire gustuko zerbaitekin egiten dut beti, alegria, irakurri eta idatzi. Ez dut aldatu beharrik.



Gipuzkoako mendiko behor eta zaldien lehiaketa izan zen goizean, eta Aritza kultur elkartekok Ausa Gaztelu eguna ere atzo ospatu zuten. IÑAKI GURRUTXAGA / GOTZON ARANBURU

Aralarko larreek langa zabaldu diote milaka abereri

Ardi, behi eta behorren aitzakian, festa giroan ospatu dute Larraitzen, beste urte betez, Aralarko larre irekiera

Itzea Urkizu Abaltzisketa

Aurtengo maiatzaren lehenak ere ez du hutsik egin, eta Larraitzen festa giroa nagusi izan zen atzo, Aralarko larre irekieraren harira.

Artisauen postuek nahiz jakirik gozoenak milaka bisitari erakarri zituzten Txindokiren maga-

lera, eta goizean goizetik abereei eskainiriko hamaika ikuskizun izan ziren: zaldi domatzailea, mendiko behor eta zaldien Gipuzkoako lehiaketa nahiz aizkolarien erakustaldia.

Ardi, behi eta behorren aitzakian, bertsolariak ere aritu ziren, eta bazkari legea egin ondoren, oinak astintzeko aukera izan zuten bertaratuek, Triki Beltz taldearen erromeriako doinuez.

Era berean, Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen dituen Ausa Gaztelu mendiaren eguna ere ospatu zuten Aritza kultur elkartekok, eta festarekin bat egin zuten ibilaldiaren ondoren.



Abereen aitzakian antolatutako festa egunak, milaka bisitari bildu zituen Txindokiren magalean. I. GURRUTXAGA

Irudia > Amasa-Villabona



ABEREEEN GOIZA, KOMIZARREN ERE

Maiatzaren 1a aprobetxatuz, Amasa-Villabonako Udalak bigarren ez antolatu du, aurtén, Komizarreko larre irekiera. Goizeko eguzkiaren babesean,

hainbat herritar igo ziren Komizarreko belazeetara, eta abereak larreetara igotzearen aitzakian, trikitia eta hamaiketako izan zituzten lagun. I. URKIZU





Herri kirolek giro aparta sortu zuten Baliarraingo Atari Soro pilotalekuan. Irudietan, lokotx biltze saioa, eta emakumezkoen trontza norgehiagoka. ENERITZ MAIZ

Maiatzeko lehen bazkaria, auzolanaz

Itzea Urkizu Baliarrain

Urteroko moduan, maiatzaren lehenarekin txekor jatea egin zuten, atzo, Baliarrainen. Bazkari legearen aurretik, herri kirolen jaiaz goatzeko aukera izan zuten herritarrek, Atari Soro frontoian.

Goiz osoan Aramako lorezaina izan zen Baliarraingo plazan, eta herritarrek garaiko lore nahiz landareak erosteko aukera izan zuten. Jarraian, eguerdi aldera, herri kirolen saioa hasi zen, Irarustabarrena bertsolari gaztearen lau bertsoekin. Aitor Esnaola kidea gogoan izan zuten bertaratuak.

Horrela, bi taldetan banatu ziren kirolariak, eta gazteen taldea eta helduenaren arteko lehia sortu zuten. Azurmendi eta Otaegi aizkolarien erakustaldiarekin batera, lokotx biltzen aritu ziren Garmendia eta Goikoetxea, eta trontza saioa ere egin zuten; emakumeen txandan Etxeberría-Astondoa eta Gorostidi-Intxausti aritu ziren norgehiagokan, eta gizonzkoenean, berriz, Gabirondo-Esnaola eta Iraola-Garmendia lehiatu ziren. Atari Soro frontoiko ikusleen artean giro ederra piztu zen, kirolariei animoak emanez. Bazkalondan, Iraolak eta Garmendiak erakustaldi berezia eskaini zuten, enbor handi batebakiz.

Eskuz esku txekorra erre

185 pertsona inguru elkartu ziren pilotalekuan eta antolakuntza herritarren lanaz osatu zuten. Urteak daramatzate ospakizun hau antolatzen. Bezperan, erretzen jarri zuten txekorra, eta beren artean txandak eginez zaintzen zuten sua, txekorriari bueltak emanez.

Mauka berria

FERMIN MUGURUZA KONTRAKANTXA

200 sarrera bakarrik

sarrera + tragoa 12€

Zuloak
Matxura
Zigor DZ-k DJ

**Maiatzaren 11n
20:30etik aurrera
Zarauzko
Aritzatalde aretoan**

Uda Berri FEST

Maiatzaren 1etik aurrera mauka.eu atarian



185 pertsona inguru elkartu ziren bazkarian. E. MAIZ



Garaiko landare eta loreak erakusgai izan ziren goiz osoan zehar, eta herri kirol saioa Irarustabarrenaren bertsoek zabaldu zuten. E. MAIZ



JOXEMI SAIZAR

Igor Labaien › Espanyol futbol taldeko gazteen entrenatzailea

Futbola bizi du txikitandik eta etxera itzuli nahiko luke, baina oraingoz gustura dabil Herrialde Katalanetan; Donostiako torneoko finala penaltietara galdu zuten bere gazteek; atzerrira joatea ez du baztertzen.

«Entrenatzaile izatea erabaki nuen eta ez naiz damutzen»

Joxemi Saizar Tolosa

Aste Santutan etxean izan bada ere, Realeko gazteen txapelketan, Espanyoleko kirol hirian elkartu da HITZA Igor Labaienekin, Barzelonako Sant Adria de Besos auzoan. Futbola bizi eta sentitu egiten du. Gustura ikusten zaio, bata eta bestea agurtzen: jokalaria, teknikariak, langileak....

Betidanik izan nahi zenuen futbol entrenatzailea?

Laskorain areto futbol taldean jokatzen nuela, jubenil mailan, hasi nintzen haurrak entrenatzen eta gustura aritzen nintzen. Gero Berrobiko pilotari lagunak ere fisikoki prestatzen aritu nintzen. Ondo aritzen nintzela sentitzen nuen, bakoitzari % 100a ateratzen niola.

Eta gustura ikusten zaizu.

Bizitza motza da eta gustuko lan-toki bat izateak ez du preziorik. Lotsa ematen dit hona lanera etortzen naizela esateak, oso gustura natorrelako.

Hasieratik hasiko gara. Nola sartu zinen futbol munduan?

Laskorain ikastolan ikasi nuen eta areto futboleko taldean jokatu nuen urte askotan. Hondartzako taldean ere bai. Lehen soldata-txoa ere txikiagoen entrenatzaile gisa irabazi nuen.

Eta ikasketak horretara bideratu zenuen.

Donostian ingenieritza teknikoak ikasten hasi nintzen: algebra, kalkulua, marrazketa, fisika... Baina ez nuen tailer batean zortzi ordu pasa nahi. Lleidara joan nintzen INEF ikastera, baina ez ninduten hartu eta Magisteritza hasi nuen eta aldi berean kadete talde bat entrenatzen hasi nintzen. Gero eskola bateko bi talde hartu, eta eskola horretan oinarriko futbolaren koordinatzaile izatera iritsi nintzen. Bi urte eginda, INEFen onartu ninduten eta gozatu egin nuen eskubaloia, futbola, saskibaloia, igeriketa... eginez. Kirola gustatzen zaion batentzat hori ez da karrera bat gitea. Gainera oso

giro ona genuen, gehienak kanpo-tik joandakoak ginelako eta horrek talde lana egitera bultzatzen gintuelako. Eta esperientzia hori mila liburu baina hobea da. Bizi behar den karrera da, ez ikasteko bakarrik. Eta bestalde, futbol entrenatzaile nazionalaren titulua daukat.

Zenbat denbora daramazu kirolek bizitzen?

Ordutik hasita, beti atera dut soldata-txoa nire taldeekin. Gero nire enpresatxoa sortu nuen prestatzaile pertsonal gisa, oposaketako proba fisikoak prestatzeko. Zazpi-zortzi lagunekin hasi eta berrogei baino gehiagorekin bukatu nuen. Aberatsa izateko asmorik ez dut, baina aurrera jotzeko atera izan dut aspalditik. Amets hori izan dut txikitandik.

Eta nolai iritsi zara Espanyoleko jubenilak entrenatzerara?

23 urterekin 3. mailan jokalaria izan edo erregional mailako taldea entrenatzea erabaki behar izan nuen. Jokatzeko zaharra eta

entrenatzeko gaztea. Ez naiz damentzen hartutako erabakiaz. Aragoako Pomar taldea jaitsiera postuetan ibiltzen zen eta bi urte-tan goiko postuetan utzi nuen. Horren ondorioz, 3. mailako Fraga taldeak deitu zidan, diru gutxi-taldea eta ni bezalako entrenatzaile bat errentagarri ateratzen zitzaion. 3. mailako entrenatzaile gazteena nintzen. Bi urte egin nituen han eta eskaintza batzuk izan nituen, baina Espanyolera jubenil mailako B taldera prestatzaile fisiko moduan etortzea erabaki nuen.

Zein da zure eginkizuna Espanyol futbol taldean?

Jubenil B taldeko, hau da, jubenil mailako lehen urteko, 15-16 urtekoen prestatzaile fisiko naiz. Eta inglesa menderatzen dudanez, jokalaria indonesiar baten entrenatzaile pertsonala naiz. Fisikoan eta taktikan lan egiten dut, entrenatzaile titulua ere badaukat eta. Atzerritik gure entrenatzeko era ikustera datozen taldeez ere ni ar-

duratzen naiz normalean, hizkuntzagatik, hemen inor gutxi dakielako ingelesa.

Nola entrenatzen duzue, bada?

Entrenamendu oso taktikoak egiten ditugu, dena jokoa ulertzera dago bideratuta, egoera desberdinak ulertzera. Fisikoki ez da hain gogorra, baina erabakiak hartzen erakusten diegu. Oso desberdina da eta harritu egiten dira kanpo-tik datozenak. Baloiarekin egiten da dena. Gure garaian eskailerak eta aldapak igotzen ziren, hori baztertuta dago. Gimnasioa ere asko erabiltzen dugun tresna da. Eta lan psikologikoa ere asko erabiltzen dugu, pertsona kontuan izan eta bere arazoak konpontzen laguntzen diegu.

Astea nolako den zehatz ezazu.

Gazteek lau entrenamendu dituzte astean, eta gehiago behar badituzte gehiago. Goizetan ikasi eta arratsaldean entrenatu egiten dute. Batzuk bertako erresidentzian bizi dira. Eta asteburuetan partiduak izaten dira. Haiekin

egoteaz gain, goizetan aurreko partiduko akatsak eta hurrengo taldearen ezaugarriak aztertzen ditugu, asteen zehar landu ahal izateko. Taldeaz aparte, lehen aipatutako lanak egin behar ditut. Eta gainontzeko taldeak eta jokalariek ikusi behar izaten ditugu, ingurukoak eta urrutiagoak ere bai. Ahalik eta jokalaririk onak lortzea eta beharrak betetzea garrantzitsua da talde bakoitzean.

Konpetentzia handia duzue Bartzelonan bertan.

Anaia aberatsa dugu ondoan. Horregatik lan bikoitza egin, profesionalagoak izan, eta azkarrago eta aztiago ibili behar dugu. Alebinetan beti irabazi egiten diogu Barcelonari eta gero sei jokalarikentzen dizkigu. Bost aldiz gehiago ordaintzen badute... Horren kontra ez dago egiterik. Guk berdina egiten dugu talde txikiagoekin. Guretzat erronka bat da Bar-

«Krisiak badu alde ona: etxeko jokalariek moldatu behar izaten da, baita Realean ere»

«Katalanez egiten diet, baina futbola nahiko erdalduna da, baita Euskal Herrian ere»

celona ondoan izatea, hobeto egin behar dugu lan. Munduko onak dira.

Gazte guztiak ez dira lehen mailara iritsiko.

Bai, baina saiatu behintzat egin behar dute. Hemen egoteko zortea dutela esaten diet. Beraien eskuetan dauden gauzetan zentratu behar dutela esaten diet, indar eta esfortzu guztiak hor gastatuz: hobetzea, ikastea... Beren eskuetan ez dauden gauzetan denbora alferrik ez gastatzeko esaten diet: jokatu ote duten, fitxa luzatuko ote dieten... Hobetzeko entrenatzen dute, ez jokatzen. Elkarriketetan zer hobetu behar duten esaten diegu: erabakiak azkarrago hartu, defentsan hobetu, zentratu... eta horretara etorri behar dute entrenamenduetara. Krisiak badu alde ona: kanpoko erdipurdiko jokalariek ez dira fitxatzen orain, etxekoekin molda-

tu behar izaten da. Realean aspaldian ez zegoen bertako hainbeste jokalaririk jokatzen.

Nola joan da Donostiako torneo? Laz laugarrenak gelditu ginen, denak lehen urteko taldeak izanda. Aurten A taldeak ziren, bigarrene urtekoak, eta gu B taldearekin joan ginen, baina konpetituko zutela ziurtatu genien eta hala izan da. Finalera iritsi eta penaltietan galdutako guren Brasilgo Puerto Bahiaren kontra. Partidurik txarrena izan zen, bi taldeak nekaneke eginda geunden lau eguntan lau partiduko jokatuta.

Nola bizi duzue bizitzako garai hau?

Eskailerak banaka igo ditut eta oraingo ez ditut jaitzi. Lagun baten apustuagatik etorri nintzen hona eta bi urte daramatzat. Nire helburua lanean ondo jarraitzea eta konfiantza hori lortzea da. Pena dut aitak hemen ez nauelako ikusi. Oso arrazionala zen eta bide hau aukeratu nuenean seguru al nengoen galdetzen zidan. Nire izentxoak egin dut futbolean Katalunian eta Aragoan. Hori Euskal Herrira iristea nahiko nuke, baina oraingo ez hemen nago.

Eta nola planteatzen duzue etorkizuna?

Kanpora joateko eskaintzak izan ditut, askoz baldintza hobegotian, baina hemen gustura nago. Espainiako futbola dagoen bezala, zorrea dugu oso kotizatuta gaudelako. Bidea kanpoan dago. Indonesiako selekzioarekin kolaboratzen aritu naiz. Ahal badut hemen urte batzuk egin nahi nituzke, erakuslehoi ona da hau. Eta gero kanpora joan behar badut, joan egingo naiz. Emaztearen herrian bizi naiz, Sant Cugat del Valles-en, oso gustura, baina bera ere prest dago kanpora joateko hala suertatzen bada.

Eta etxera, noiz?

Ez dakit, nahiko nuke. Familiarekin egoten naiz tarteka. Harremanik ez dut galdu lagunekin, sare sozialei esker. Alaba txikia euskaraz ondo moldatzen da, katalana eta gaztelarekin batera.

Zer moduz moldatzen zara katalanez?

Gaztelarekin baino hobeto. Jokalarikatalanekin erabiltzen dut, baina futbola nahiko erdalduna da, baita Euskal Herrian ere.

Irudia



FRONTE POLISARIO BERRIARI HARRERA

Tolosaldeko zenbait alkatek eta Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkariak harrera egin zioten Tolosako udaletxean, Fronte Polisarioak Euskal Autonomia Erkidegoan duen ordezkariari. Mohamed Fadel Hay Enhamed Kaik Saleh-ek

duela gutxi hartu du kargua eta bere burua aurkeztearekin batera, Mendebaldeko Saharak egun bizi duen egoeraren berri eman die udal ordezkariari. Horrez gain, egun eskuartean dituzten proiektuez ere hitz egin die ordezkariari. HITZA

VII. Poltsiko Antzerki Lehiaketa bihar hasiko da, Asvinenean

Lehen kanporaketari 22:00etan emango zaio hasiera, eta lau antzezlan ikusteko aukera izango da

Erredakzioa Aduna

Asvinenea Elkarte Kulturalak, bihar, hilak 3, VII. Antzerki Poltsiko Lehiaketari hasiera emango dio. Artista profesional zein amateurrek parte hartzen dute, eta 8 eta 15 minutu arteko iraupena duen antzerki laburrak antzeztu behar izaten dituzte.

Lehen kanporaketan, Anogusanoren, *A pan y agua*; Nalua clown y cia taldearen, *Nalua Barco*; Alegria Hermanos taldearen,

Pequeños inconvenientes de un mundo feliz eta Slowwww-ren, *Puzzle* izango dira. Emanaldi guztiak Asvinenean Adunan duen egoitzan izango dira. Saio bakoitzean, artista gonbidatuak izango dira, eta lehenengoan, Imanol Carballo, bakarlarria eta Duo do Portu abeslaria izango dira. Ateak 21:30ean zabalduko dituzte, eta 22:00etan emango zaio hasiera. Sarrera, bost eurokoa izango da.

Formatu laburragoa

Aurtengoan, lehiaketa formatu laburragoan egin dute. Hiru kanporaketetan banatu dute. Saillapen bakoitzean bi talde saillatuko dira, bat epaimahaiaren erabakiz eta bestea ikusle goaren botoei esker. Saillapen hauek gainditzen dituzten talde edo bakarlar-

riek hilaren 24an izango den finalean parte hartuko dute. Epaimahai profesionalak aukeratutako irabazleak 600 euroko saria eramango du, eta publikoaren bozken bidez aukeratutako taldeak, berriz, 300 euroko saria poltsikoratuko du.

Bigarren kanporaketa, hilaren 10ean, izango da. Ondorengo antzezlanak lehiatuko dira: Karmakros-en *El poste*, Teatro que madurataltaldeen, *Nunca se sabe*; No me claves tus punñalesen, *Tardes de patio*; Panico escenico taldearen, *Gay Hitler! La historia contada con pluma*; Urban13ren, *Se acaba todo muñeca* eta Amildegian antzerki taldearen *Paz, no esta con nosotros* izango dira.

Hirugarren kanporaketa, berriz, hilaren 17an izango da.



Igor Labaien entrenatzaile lanetan aritzen den zelaia atzean duela. J. SAIZAR

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



15°
10°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATSALDEA LANITUTA
BEROENA 15°
HOTZENA 9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduana, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Udal ordezkariak, eta baratzea izango duten herritarrak, lehen aldiz baratzeetara sartzen. HITZA

Asteasun udal baratzeak inauguratu dituzte

2012an hasitako baratzeen proiektua martxan jarri berri du Asteasuko Udalak, 20 familiekin

Erredakzioa Asteasu

Asteasuko Udalak bere egitasmoen artean, udal baratzeak aurrera ateratzeaz zuten helburu, eta azken hilabeteetako lanak bere fruitua eman du. Pasa den larunbatean inauguratu zituzten herritarren artean banatu dituzten baratzeak. Agroaldeko lursaileen jarri dute udal baratzeen gunea.

Udalaren baratze ekologikoak, herritarrentzako eskaintza pedagogiko eta ekologikoa izango dira. Lurra lantzeko eta norberak kontsumitzeko barazkiak izateko edonork espazio publiko bat eskura izan dezan, ahalegina egin du Asteasuko Udalak.

2012an hasi zuten proiektua. Lehendabizi udal ordenantza onartu zuen udalak, eta jarraian, baratzeen tokia prestatu eta herritarrei aurkezpena egin zieten. 28 partzela prestatu dituzte. Komuna, biltegia, konposta gunea orokorra eta ura eskura izango dituzte erabiltzaileek. Behin guztia prestatuta, izena emateko deialdia ireki zuen udalak, eta 20 familia apuntatu ziren.

Baratzeen zozketa apirilaren 24ean egin zuten, eta 27an, Aitziber Otegi ikastaroa eskaini zien



Aitziber Otegi herritarrak ikastaroa eskaini zien esleietuei. HITZA

egokitutako guztiei, Asteasuko udaletxean. Ondoren, baratzeetara hurbildu ziren tokia ezagutu, eta sarrerako giltzak jasotzeko. Jendea «gogotsu eta ilusio handiarekin ikusten da lanean haste-

ko», adierazi dute udal ordezkariak. Jada, herritarrek lurra beraien esku dute. Beraz, «animo osoa» luzatu nahi izan die Asteasuko Udalak.

• tolosaldean@hitza.info

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Patinatu familian prezio ezin hobean

TXURI-URDIN IZOTZ HAUREGIA
Anoeta Pasealekua, 24
Donostia 20014 GIPUZKOA
Tel.: 943-46 44 04
direccion@eltxuri.com
www.eltxuri.com

Prezioa heldua **5€**
Prezioa haurrak **3,4€**

www.mauka.eu **berria** taldea

Agurrak



Urrezko ezteiak!

Antonio Salaverria eta Edu Elgarresta. Zorionak bikote! Etxeko guztien partetik ondo pasa, eta muku potoloak biontzat.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Ibarra Udalak, Euskal Herria kaleko 1-17 eta 19-41 kaleko bizilagunei auzo konpostagunea erakutsiko diete. Beko

Bide 6 kalean elkartuko dira bizilagunekin.

■ **Tolosa.** Larramendiko auzo lokalen inaugurazio ekitaldia izango da larunbatean. Bilera deitu dute, 19:30ean, Arkaute etxean, ekitaldia antolatzeko.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalaretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gaukoak: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10.

Telefonoa: 943 67 24 38.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Harpide egiteak saria du

Egin HITZAren harpidedun apirilaren Tetik

maiatzaren 31ra arte, eta jaso

OPARI


Basoa banaketak eskainitako 3 ardo botila



eta

Harpidedun guztien artean

Arete Etxea nekazalturismoan bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU



Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info